



José María Portell (Barakaldo, 1933ko abenduak 7)

José María Portell euskal kazetaria *La Gaceta del Norte*ko erredaktore-buru izan zen eta urte batzuk geroago, *Hoja del Lunes*eko zuzendari izendatu zuten. Associated Press, la Vanguardia eta ABC-ko korrespontsala ere izan zen Euskal Herrian.

Tokiko kazetaritzarekiko dedikazioak hainbat gai gatazkatsu jorratzera eramanez, ez arlo politikoan giza-arloan baizik. Udal eta eskualde mailako informazioek bere kontrako aditasun iraunkorra eragin zuten hainbat administrazioko sektore boteretsuetan. Portell oso ezaguna izan zen estatu mailan garrantzia handia zuten gatazka batzuetan izandako arduragatik. Informatzaile independente ospetsua izan zen, nahiz eta akok polemikotzat hartu.

1970-1975. urteetan, Portell ETAren inguruko gaietan espezializatu egin zen eta 2 liburu idatzi zituen: *Hombres de ETA* eta *Euskadi, amnistía arrancada*. Urte batzuk geroago Gobernuaren eta ETAren bitartekari izan zen Euskal Herrian bakea lortzeko.

1978ko ekainaren 28an asasinatu zuten, ETAk hildako lehen kazetaria izan zelarik.